

---

## GIZARTEA

---

### CADIZKO KONSTITUZIOAREN ALDEKO SERMOIA EUSKARAZ, HIRURTEKO LIBERALAREN GARAIAN (1820-1823)

#### 1. Aurkezpena

Artikulu honetan euskarazko testu bitxi bat aurkeztu nahi dugu. Egia esan, testua sermoi bat baino ez da eta, dakigunez, euskal letren altxorrean halako testu asko eta asko gordetzen dira. Bainaz idazkiari bitxitasuna eta balio berezia gaitik datorkio: gure sermoia 1820. urtetik aurrera indarrean egon zen Konstituzio liberalaren aldekoa da eta kontuez gain politikaz ari da.

Topikoak dio euskal elizaren joera XIX. mendean erabat tradizionalea izan zela, salbuespenak salbuespen; laburpen modura, hauxe idazten du Coro Rubio historiagileak XIX. mendeko lehenengo urteetako egoera eta elizari buruz: “*se inició en esta época un peligroso compromiso antiliberal y absolutista del clero vasco, que se reforzara durante el Trienio liberal (gure testuaren garraia) y explotará en 1833 (lehenengo karlistaldia)*”<sup>1</sup>.

Hala ere, azken urteetan plazaratutako lan eta datu batzuei esker, elizgizon euskaldun batzuen lana ezagutu dugu, betiere, liberalismoaren ildotik<sup>2</sup>.

<sup>1</sup> RUBIO POBES, Coro: *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*, Siglo Veintiuno de España Editores, Madrid, 1996, 11. or.

<sup>2</sup> Ikus, laburpen modura, gure artikulua: GALLASTEGUI ARANZABAL, César: “La difusión del Liberalismo en el País Vasco: de la *Carta Pastoral* de Luis de

Oro har, hauek dira joera liberalaren euskarazko emaitzak XIX. mendearen hasieran:

a) Luis de Borbon Espaniako Erregearen osaba eta Toledo artzaezpikuak Konstituzioaren eta sistema politiko berriaren aldeko testu garrantzitsu bat argitaratu zuen, 1820ko martxoaren 15ean<sup>3</sup>. Artzaezpikuaren gutunak erregimen berriaren eta elizaren arteko bateragarritasuna aldarrikatzen zuen, liberalismoaren eta erlijioaren arteko bateragarritasuna. Luis de Borbonen hitzen ondotik, Fernando VII.aren adierazpena, martxoaren 10ekoa, zetorren. Testu horrek euskarazko argital-pena ere izan zuen, 1820an bertan, Bilbon: “*Luis de Borbon, por la divina misericordia... / Luis de Borbon, Jaungoicuaren onerichiz....*” Argitalpen elebidun horren itzultzale, Bizenta Mogel, testuak berak bukaeran dioenaren arabera (“*Traducida del romance al bascuence, por Doña Vicenta de Moguel*”)<sup>4</sup>.

b) Liberalismoak sistema politiko berriaren zabalkundea aurrikusi zuen. Hori dela eta, eskoletan erabiltzeko eskuliburuak idatzi ziren, katixima modura atonduta, umeek eraentza berria ezagutu zezaten. Gure inguruko eskoletan, gaztelaniazko aleez gain, euskarazkoak ere zabaldu ziren. Horien adibidea, Tolosan argitaratutako *Españiaco uritar constitucionales*

---

Borbón (1820) a *El liberalismo es pecado*”(1887)”, *Estudios de Deusto*, (ale berezia: *Homenaje al Profesor Don Pablo Lucas Verdú*) 51/1, 2003, 191-209 or.

<sup>3</sup> Erdarazko testuak hainbat eta hainbat edizio izan zuen. Luis de Borbon pertsonaiari buruz, RODRÍGUEZ LÓPEZ-BREA, Carlos M.: *Don Luis de Borbón, el Cardenal de los liberales (1777-1823)*, Junta de Comunidades de Castilla-La Mancha, Toledo, 2002.

<sup>4</sup> Euskarazko testua gaur egungo liburu honetan irakur daiteke, ALTZIBAR, Xabier: *Bizkaierazko idazle klasikoak*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1992, 339-351 or. Testuari buruzko xehetasunak, URQUIJO, Julio: “Notas de Bibliografía Vasca. Carta Pastoral en vascuence del Primado de las Espanas”, *Revista Internacional de Estudios Vascos*, XXV, 1934, 678-682 or. Egia esan, ezin dugu Bizenta liberaltzat hartu, Luis de Borbonen itzulpena gorabehera; gertuago dago, antza, sasoi horretako Bilbon zegoen gune euskaltzaletik; gainera, Gabonetako bertsoak idatzi zituen eta horietako batzuk kontserbadoreak dira; azkenik, Bizkaiko erakunde publikoen zenbait paperen itzultaile izan zen baina hotren frogarik ez dago.

*cartilla civil / Cartilla civil del ciudadano español constitucional* delakoa<sup>5</sup>. Gipuzkoako Aldundiak, 1820ko azaroaren 14ko zirkularren bidez, liburutxoaren berri eman eta haren erabilera gomendatu zuen. Gure ustez, euskarazko itzulpenaren arduraduna apaiz bat izan zen<sup>6</sup>.

c) Badago bigarren katixima bat euskaraz, Konstituzioa eta egitura politiko berria umeen lehen eskoletan azaltzeko: *Jaqin-bide Iritarautia Espaniaco Neurquidaren edo Constitucio berriaren erara adrezatua*. Kasu honetan, aldiz, testuak ez zuen argia ikusi eta eskuizkribu modura ezagutu dugu gaur egun. Itzulpenaren egilea Mutiloako bikarioa, Jose Felix Amundarain Muxika dugu<sup>7</sup>.

d) Jose Felix de Amundarain abadea ere beste testu interesgarri baten egilea dugu<sup>8</sup> Espainiako lege baten itzulpena egin

<sup>5</sup> *Espaniaco uritar constitucionales cartilla civil / Cartilla civil del ciudadano español constitucional*, Tolosa, Juan Manuel de la Lama, 1820. Testu elebidunaren transkripzioa Interneten ikus daiteke: <http://www.vc.ehu.es/gordailua>; orain dela gutxi euskarazko zatiaren transkripzioa paperean atera da: *Espaiñako uritar konstituzionalaren kartilla zibila*, Hiria, Donostia, 2003.

<sup>6</sup> Ustezko egileari eta beste xehetasun batzuei buruz, ikus GALLASTEGUI ARANZABAL, César: *Ibidem*, 201-202 or.

<sup>7</sup> Eskuizkribuaren faksimila, *Jaqin-bide Iritarautia Espaniaco Neurquidaren edo Constitucio berriaren erara adrezatua Erritarren arguidoraraco, gazteen icasbideraco eta Escola\_maisuen usoraco. Erderatic Eusquerara itzulidu Apez Vicario D.D.J.J.A. Gipuztarrac. 1820n urtean*, Ararteko, Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco, Vitoria-Gasteiz, 1991.

Eskuizkribuaren egileari buruz, IBISATE, A.: "El original castellano del *Jaqin-bide Iritarautia* del Dr. D. J. F. A.", *Scriptorum Victoricense*, 39, 1992, 222-227 or.; IBISATE, A.: "El Doctor Don José Feliz Amundarain (Cegama 1755-Mutiloa 1825), autor del *Jaqin-bide Iritarautia* (1820)", *Boletín de la R.S.B.A.P.*, L, 1994-1, 159-169 or.; SAN MARTIN, J.: "Dr. D. Jose Felix Amundarain Mujika eta Cadiz-ko Konstituzio euskaratuaz zenbait ohar", *Egan*, L, 1998, 242-244 or.; IDIAKEZ, A. et al.: *Jose Felix Amundarain Muxika (Zegama, 1755-Mutiloa, 1825)*, Goierriko Euskal idazle ezezaguna, Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartea, Lazkao, 1998.

<sup>8</sup> Lege testu baten lehenengo itzulpena, guk dakigula. Amundarainen testu horren berri eman genuen Euskaltzaindiaren Nazioarteko XV. Biltzarraren barruan.

baitzuen. Testuak *Reglamento provisional para la Milicia nacional* delakoa ematen du euskaraz; 1820ko udan emandako araudi horren arabera, miliziako taldeak sortu behar ziren herriz herri; Amundarainen ekimenari esker posible izango zen ahozko mailan euskaraz antolatutako jarduera horri euskarazko oinarri idatzia ematea, baina testu hau, katiximarena bezala, argitaratu eta zabaldu gabe geratu zen, paper zaharren artean ahaztuta gaur egun arte.

Beraz, idazlan honetan joera liberal horren beste emaitza bat ezagutuko dugu, apaiz-sermoigile zinez liberal baten lana, alegia<sup>9</sup>.

## **2. Hirurteko liberalaren zenbait gorabehera sermoien inguruau**

Antzinako Erregimenaren kontrako ideia politiko berrieik herriaren atxikimendua irabazi nahi zuten. Horretarako kultura liberala zabaltzen saiatu ziren eta hainbat eta hainbat neurri ezarri ziren. Konstituzioak berak, idatzi zenean, hau da, 1812an, artikulu bi aurreikusi zituen sistemaren hedapena lortzeko:

*366. art.: “En todos los pueblos de la Monarquía se establecerán escuelas de primeras letras, en las que se enseñará a los niños a leer, escribir y contar, y el catecismo de la religión católica, que comprenderá también una breve exposición de las obligaciones civiles.”*

*368. art.: “El plan general de enseñanza será uniforme en todo el reino, debiendo explicarse la Constitución política de la*

---

<sup>9</sup> Aipatutako testu guztiak prosaz idatzita daude. Badira sasoi horretako bertsoak, liberal eta kontserbadoreen arteko liskarrei lotuak. Antonio Zavalak sasoi horretako bertso sorta bi dakartzza, baina ez dira liberalak: “Markina, Xemein ta Etxebarrak irurak bat agur egiten deutse Konstituzioneko damiari” eta “Donostian soldadu”; ZAVALA, A.: *Karlisten leenengo gerrateko bertsoak*, 2. arg., Auspoa, Tolosa, 1993.



*Monarquía en todas las universidades y establecimientos literarios, donde se enseñen las ciencias eclesiásticas y políticas".*

Dakigunez, handik bi urtera Cadizko Konstituzioa bertan behera geratu zen, Euskal Herriko bizimoduan ia ondoriorik izan gabe, eta lehenengo sistema politikora bueltatu zen.

Sei urte geroago, Riegoren altxamenduaren ondorioz, Cadizko Konstituzioa berrezarri zen. Berehala hasi ziren araubide eta biziera liberalaren emaitzak. Gure gaiari dagokionez,

Espainiako Gorteek, 1820. urteko apirilaren amaieran, hurrengoa erabaki zuten:

*“todos los Curas Párrocos de la Monarquía, o los que hicieren sus veces, expliquen a sus feligreses en los domingos y días festivos la Constitución política de la Nación, como parte de sus obligaciones; manifestádole al mismo tiempo las ventajas que acarrea a todas las clases del Estado, y rebatiendo las acusaciones calumniosas con que la ignorancia y la malignidad bayan intentado desacreditarla”<sup>10</sup>*

Beraz, pulpitudik, orduko komunikabide nagusitik, liberalismoaren aldeko hitzaldiak entzungo ziren<sup>11</sup>. Zein izan zen orduko apaizen jarrera? Gerard Dufourren ustez, hiru talde bereiz daitezke: *“los prudentes, que jugaron a dos barajas, mostrándose constitucionales con los liberales y realistas con los serviles, basta que la entrada en España de los Cien Mil Hijos de San Luís les evidencie el camino que habían de seguir”*; bigarrez, *“los que hicieron del púlpito el primer baluarte de la defensa del Trono y del Altar, y excitaron abiertamente al pueblo a declararse a favor del rey neto (o sea, absolutista)”*; eta, azkenik, *“el clero que anduvo francamente por la senda constitucional”<sup>12</sup>*.

---

<sup>10</sup> 1820ko apirilaren 20an emandako dekretua. Araudi horretan bertan beste manu hau jasotzen da, eskolako maisuei dagokienez: *“en todas las escuelas de primeras letras y humanidades del reino se explicará por los maestros la Constitución de un modo claro y perceptible a la edad y compresión de los niños, a quienes se familiarizará con la lectura, ejercitándolos en la del mismo Código fundamental”*.

<sup>11</sup> Apaizen eraginari buruz Felix Llanosek dio: *“¿Podía haber arraigado este liberalismo en las poblaciones rurales? En algunos lugares, como Amézqueta o Segura hubo voluntarios entre molineros, boticarios, confiteros, cirujanos o carpinteros. Siempre dependiendo también del entusiasmo constitucional de algún clérigo local. Pero no fue el caso habitual”*, LLANOS ARAMBURU, Félix: *El trienio liberal en Guipúzcoa (1820-1823)*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1998, 504-505 or.

<sup>12</sup> DUFOUR, G.: *Sermones revolucionarios del trienio liberal (1820-1823)*, Instituto de Cultura “Juan Gil-Albert” / Diputación de Alicante, Alacant, 1821, 38-39 or.

Euskal elizetan ere, Konstituzioaren abantailak eta onurak argitu eta azalduko ziren, batzuetan gogoz eta bihotzez, beste batzuetan, halabeharrez. Baditugu, kontrako jarreraren adibideak: Coro Rubioren esanetan:

*“La labor de oposición al régimen liberal se inició muy tempranamente, resistiéndose los párrocos a la lectura de la Constitución y a la publicación de las órdenes y decretos en la iglesia. Sólo tras un mandato expreso del obispo accedían a explicar el texto gaditano desde el púlpito, pero lo hacían buscando la hora de menor asistencia a misas o se expresaban de tal forma que más parecía la tribuna de un conspirador que la cátedra del Espíritu Santo”<sup>13</sup>*

Eta egoera laburbilduz, Gipuzkoako agintari nagusiaren (Villafuerteseko kondea) hitzak: “son en mayor número las que, con su silencio o con explicaciones en que no se disimula ser forzadas y no conformes con sus sentimientos, tienen a los sencillos feligreses en la ignorancia de las verdades que les importa saber y que apenas pueden saber por otro conducto que el de sus párrocos”<sup>14</sup>.

Liberalismoaren aldeko sermoietara bueltatuz, badira testu mota horiei buruzko artikulu eta ikerketak, gaztelaniazko tetsuei dagokienez<sup>15</sup>; horietan esaten denez, ez dira asko gordetzen diren testuak. Euskaraz, berriz, testu urri horietako bat

<sup>13</sup> RUBIO POBES, C.: *Revolución y tradición. El País Vasco ante la Revolución liberal y la construcción del Estado español, 1808-1868*, Siglo Veintiuno de España Editores, Madrid, 1996, 21. or.

<sup>14</sup> Gipuzkoako Artxibo Orokorra, 1. 18 281 Esp., lan honetatik hartua; PORTILLO, J.M.: *Los poderes locales en la formación del régimen foral. Guipúzcoa (1812-1850)*, EHU, Bilbo, 1987, 30. or.

<sup>15</sup> Esaterako, lehen aipatu dugun lana, hain zuen, Dufourren bilduma, edota GARCÍA-CUEVAS VENTURA, José: “Un sermón liberal en la Córdoba del Trienio (1820)”, *Hispania Sacra*, I. lib., 101. z., 327-341 or.; eta CARREÑO RIVERO, M.: *La oratoria sagrada como medio de educación cívica en los inicios del liberalismo español: 1808-1822*, Madrid, Universidad Complutense, 1990.

azaldu nahi dugu, apaiz zinez liberal baten eskutik datorren testua, hain zuzen.

### **3. Euskarazko sermoiari buruzko xehetasunak**

Gure ikergaia *Archivo de la Casa Zavala* izeneko agiritegi pribatuau dago<sup>16</sup>. Familiako agiritegi dotore hori Donostian dago, Luis de Zavalaren jabetza eta zaintzapean<sup>17</sup>. Bide batez, es-kertuko nahi genioke On Luisi, batetik, agiritegia sortu eta mantentzeagatik eta, bestetik, emandako laguntasunagatik.

Euskarazko sermoi politikoaren jabetzari dagokionez, “Casa de Zavala” agiritegiaren antolatzaileek Martin de Galarraga apaizari egozten diote. Agiritegi horretan dokumentu ugari gordetzen dira Martin de Galarragari buruz; horren arabera, Martin Villafuerteseko kondearen (condeak XIX. mende hasierako Gipuzkoan kargu politiko garrantzitsuenak izan zituen, bai foru sistemaren barruan, bai sistema politiko berrian)<sup>18</sup>

<sup>16</sup> Sermoia honela aipatzen da agiritegiaren katalogoa: “Fondo de la Casa de Zavala. Sección 2. Terceros Condes de Villafuertes. Relaciones con la Iglesia. 304.9”. Agiritegiaren katalogo horren berri hurrengo oin-ohartean ematen dugu.

<sup>17</sup> Familiako agiritegi horren katalogoa, *Inventario del Archivo de la Casa de Zavala*, 4 liburuki, Donostia, 2000. Lan mardul horren arduraduna Borja de Aginagalde dugu (berari ere mila esker emandako laguntasunagatik).

<sup>18</sup> Martin de Galarragaren bizitza osoa Villafuerteseko kondearen itzalpean gerlatzen da. Badago monografía bat pertsonaia honi buruz: CAJAL VALERO, Arturo: “Paz y Fueros”. *El Conde de Villafuertes. Guipúzcoa entre la Constitución de Cádiz y el Convenio de Vergara (1813-1839)*, Biblioteca Nueva, Madrid, 2002. Cajalen liburuan hurrengo laburpena irakurri ahal dugu, entseguaren 21. orrialdean, Villafuertesko kondearen bizitzari buruz: “El aristócrata tolosano Manuel José de Zavala, conde de Villafuertes, es una de las figuras más interesantes de Guipúzcoa, y por extensión de todo el País Vasco, en la primera mitad del siglo XIX. Además de varias veces Diputado General de la Provincia, Prócer del Reino en Madrid en 1834-1835, Corregidor Político (delegado del Gobierno) en Guipúzcoa en 1839-1840, el Conde de Villafuertes destaca por dos hechos significativos: fue la persona encargada de aplicar en Guipúzcoa la “Constitución de Cádiz”, durante los dos primeros períodos cons-

maisu eta ondasunen administratzaile izan zen. Bestalde, hirurteko liberala amaitu ondoren, jazarpen politikoa jasan zuen<sup>19</sup>.

Hauxe da agiritegiaren gidak Galarragari buruz dioena:

*“Fue el fiel preceptor y “alter ego” del Conde en la administración de sus bienes. La documentación conservada sobre don Martín es también muy rica e interesante. La podemos agrupar en: a) Documentación personal. Certificados de estudios y correspondencia al respecto. Pleito en la Curia de Pamplona sobre sus inclinaciones liberales tras el Trienio. Correspondencia con su primo, J. B. Montes, Director del Real Seminario de Nobles de Bergara, sobre problemas del Real Seminario, asuntos familiares y sobre varios sobrinos de Galarraga a los que éste pagaba sus estudios en el Real Seminario. b) Administración. Recibos, cuentas anuales y una riquísima correspondencia que Galarraga, como Administrador General, mantenía con otros administradores de bienes familiares no situados en Tolosa y su entorno: Churruca en Motrico, Armendáriz en la Corte, etc. Galarraga llevaba, además, la administración de las contribuciones e impuestos que se pagaban en numerosos pueblos de la provincia por las propiedades del Conde”<sup>20</sup>.*

---

*titucionales de la historia española (1813-1814, 1820-1823); y en el tramo final de la guerra carlista de 1833-1839, fue miembro fundador de la “Junta de Bayona” formada por el Gobierno para apoyar la famosa Bandera “Paz y Fueros”, levantada en 1838 por el escribano Muñagorri con objeto de promover en el carlismo vasco el abandono de las armas y de la causa de Don Carlos a cambio de la confirmación de los Fueros”.*

<sup>19</sup> Liberala izateagatik jasandako prozesuaren inguruko paper batzuk agiritegian gordetzen dira: “Fondo de la Casa de Zavala. Sección 2. Terceros Condes de Villafuertes. Curriculum y honores. 112.3.”

<sup>20</sup> *Inventario del Archivo de la Casa de Zavala*, 1. liburukia (*Introducción izeneko*), Donostia, 2000, 100-101 or. Orrialde horietan bertan datu gehiago daude Galarragari buruz: “Su compenetración con el Conde, incluso en sus convicciones liberales, fue notable. No olvidemos que fue su preceptor al quedar huérfano muy niño” eta ”Galarraga fue, además, testamentario y administrador de los III Marqueses de Narros, Joaquín María de Eguía (1733-1803) y su segunda mujer,

#### 4. Sermoian erabilitako hiztegiari buruzko zertzeladak

Sermoian erabilitako gaiak berba berriak eskatzen zituen. Eta euskararen kasuan arazoa erakargarriagoa da, liburu ez erlijiosoen gabeziaz ohartuz gero. Bestalde, esan behar, kontzeptu berriak erdaraz ezagutu eta ikasiko zituztela orduko herritar jantziek.

Zein da Galarragaren irtenbidea kontzeptu berriak euskaraz emateko? Artikulu honen aurreko lerroetan beste apaiz gipuzkoar bat aipatu dugu, Amundarain zegamarra. Amundarainek bai Konstituzioari buruzko azalpenen liburuan, bai miliziari buruzko araudian Larramendiren hiztegia erruz erabiltzen du<sup>21</sup> (berba berrien ondoan, hala ere, mailegua jartzen du, azalpen modura). Hori dela eta, batean irakurri ahal dugu:

*“¿Que es Constitucion? Una colección ordenada de las leyes fundamentales o políticas de una nación. ¿Que se entiende por leyes fundamentales? Las que establecen la forma de gobierno: es decir, las que fixan las condiciones con que unos han de mandar, y otros obedecer. / ¿Cer da Neurquida, edo Constitucioa? Da Erreinu baten ondequidarren batune zucena. ¿Cer aditcenda legue ondequidarracgaltic? Gobiernuaren zucen bidea bitezarcen dutenac: au da, nolatan, edo cer moduz batzuec aguindu, eta besteal eguiñezaro eracusten dutenac”.*

Araudiaren itzulpenean, berriz, honen modukoak daude:

*“Don Fernando VII por la gracia de Dios y por la Constitución de la Monarquía Española, Rey de las Españas,*

---

M<sup>a</sup> Josefa de Salazar (1744-1806), tía carnal de doña Escolástica. En el Archivo hay una interesantísima correspondencia de D. Fausto del Corral, V Marqués de Narros, con Galarraga. Ref. SILVAN, L.: “Noticia biográfica de don Joaquín de Eguía y Aguirre, tercer Marqués de Narros, Secretario Perpetuo de la Real Sociedad Bascongada” BRSVAP, 1967 (XXIII), pgs. 369-404”.

<sup>21</sup> Larramendiren hiztegiak esparru politiko eta juridikoan eskainitako baliabideei buruzko azterketa lehen aipatu dugun lanean dago, Euskaltzaindiaren XV. Nazioarteko Biltzarrean aurkeztutako txostenean.

*a todos los que las presentes vieren y entendieren sabed: Que las Cortes han decretado lo siguiente: Las Cortes, usando de la facultad que se les concede por la Constitución, han decretado el siguiente reglamento provisional para la Milicia nacional. / Don Fernando VII Jaungoicoaren graciaz, eta Espaniar Bacarondearen Neurquidaren, edo Constitucioaren bidez, aurreco erabaquiac icusten, ta aditcenditzten guciai: Jaquin ezazute: Uri-batzarreac erabaquidutela ondorengoa. Uri-batzarreac Neurquida, edo Constitucioac ematen dizten escualdeen erara erabaquidute ondorengo bitarteroco gudartari Dierritararen araudea”.*

Horra hor, Larramendik “propositutako” neologismoen bidea garai berrietako berba landu eta jantziatarako. Baino badago beste konponbiderik, aurretik aipatutako Bizenta Mogelen lana edota Espaniako uritar constitucionales cartilla civilla delakoa. Azken lan horretan mailegutara jotzen da nabarmenki:

*“¿Que es ley? Ley es una expresion de la voluntad general acordada por la potestad legislativa á quien el pueblo dió sus facultades para acordarla y sancionarla en las Cortes, porque todos los ciudadanos tienen un derecho igual para concurrir por si ó sus representantes apoderados al efecto á la formacion de la ley, porque esta es el precepto, que el mismo se impone para mantener el orden y la tranquilidad pública. ¿Cuantas especies hay de leyes? Dos, unas son fundamentales, porque son la norma para las potestades y forman la constitucion; y otras distributivas que son para adjudicar el derecho; y los tratados que las contienen, se llaman códigos, ordenanzas y reglamentos. / ¿Cer da Leguea? Erri guciac gandic Legueac eguiteco escubidea artu duten guizonac, gucien vorondateen javeac vecela, gucien icenean cerbait aguintzea edo debecatzea bere batzarre edo Cortetan; ceren uritar guciac dute escubide bérdiña Legueac eguitecoan aditzeko, edo bere, edo beren icenean onetaraco biraltzen dituztenen bidez. Ta ala ongi barrundu edo examinaturic, leguea ezta besteric, Uritar guciac*

*beren buruai ipiñi dioten aguinte bear bat baici, beren paque oneraco, ta gauzac gucientzat zucen juan ditean. ¿Cembait guisa edo moduacoc dira legue oriec? Bi era edo moduacoac: batzuec dira legue-cimenduac, edo fundamentalac; ceren aguintea eduqui bear dutenai iracusten dien, ceinzuec diran beren escubideac, nola besteac aguindu ta gobernatu bear dituzten, ta ce cimenduren gañean; ta legue oyec eguiten dute Constitucioa. Besteac dira emanlegue, edo distribuciocoac; ceren Uritar bacoitzari dagoquion escubide derechoa emateco eguiñac diran; ta legue oyec dacazquier liburuai deitzen za ye Código, ordenanza, ta erreglamenduac”.*

Gure testuari dagokionez, sermoietan erabilitako ohiko mai-leguak agertzen dira (diskurso handitsua egiteko edo euskarazko ordain arrunta ez ipintzeko: *tribulacio, dicha, turbatu, desconfianza, descontentua...*). Horrez gain, hiztegi politikoa topatzen dugu. Kasu honetan, berba batzuk aurretik baziren ere (*bake, lege, erreinu*), adierazmolde berriei aurre egiteko Larramendiren hiztegia izan zitekeen irtenbidea baina, ikusiko dugunez, Larramendiren eragina ez da nabarmenzekoa.

Jarraian berba politiko garrantzitsuenen trataera jasoko dugu<sup>22</sup>:

#### a) Ciudadano<sup>23</sup>

Erdarazko *ciudadano* delakoaren kontzeptua birritan agertzen da gure testuan. Batean, sermoigileak Larramendiren oraina erabiliko du, baina, euskal idazkietan askotan gertatzen den moduan, maileguarekin batera (“descontentua *Ciudadano edo Uritarren* artean zavaltcen dutenac”). Bigarren agerpenean, aldiz, gaztelaniazko mailegu hutsa agertzen zaigu (“unio ta armonia obea *Ciudadano* Espaniaco gustien artean”). Bi ka-

---

<sup>22</sup> Erdarazko berbategi liberalari buruzko azterketa lan honetan: SEOANE, M.C.: *El primer lenguaje constitucional español*, Editorial Moneda y Crédito, Madril, 1968.

<sup>23</sup> *Ciudadano* kontzeptu eta berba berriari buruz, ikus SEOANE, M.C.: *Ibidem*, 113-122 or.

suetan, hori bai, berbaren lehenengo hizkia letra larriz idatzita ageri zaigu, antzeko hitzekin gertatzen den bezala.

b) Constitución<sup>24</sup>

Erdarazko *Constitución* hiru aldiz agertzen da testuan zehar (*Constitucio; governu legue edo Constitucio; Constitucio*). Beraz, oraingoan idazleak mailegua erabiltzen du, behin *governu legue* esamolde adierazkorrairekin lotuta eta Larramendiren proposamenak erabat ahaztuta<sup>25</sup>.

c) Padres de la Patria<sup>26</sup>

*Patriaco Guraso* ageri zaigu erdarazko kontzeptu hori euskaraz emateko (“Gauza lastimagarria da icustea *Patriaco Gurasoac* Corteetan alceturic gau ta egun”). Esamolde horretan ez dago Larramendiren zantzurik<sup>27</sup>.

d) Cortes<sup>28</sup>

Kontzeptua emateko *Corte* mailegua agertzen da (“Gauza lastimagarria da icustea *Patriaco Gurasoac* Corteetan alceturic gau ta egun”); kasu horretan ere ez dago Larramendiren arrastorik<sup>29</sup>.

## 5. Sermoiaren transkripzioa

Jarraian sermoiaren testua emango dugu eskuizkribuan agertzen den bezala<sup>30</sup>:

<sup>24</sup> *Constitución* berbari buruz, ikus SEOANE, M.C.: *Ibidem*, 101-107 or.

<sup>25</sup> Larramendiren hiztegi hurrengoa dator: “neurquida, arauquida”. “Gobernu lege” esamoldea 1820. urtean argitaratutako kateximan ere ikus daiteke; “hiritar” berbari buruz, gauza bera.

<sup>26</sup> *Padres de la patria* adierazmoldeari buruz, ikus SEOANE, M.C.: *Ibidem*, 101. or.

<sup>27</sup> Larramendiren hiztegi hirukoitzean “patria” euskaratzeko “erria, sorterria, jayeterria” ageri da.

<sup>28</sup> *Cortes* adierazmoldeari buruz, ikus SEOANE, M.C.: *Ibidem*, 91-100 or.

<sup>29</sup> Larramendiren hiztegiak erdarazko “Cortes” itzultzea “Urien batzarrea” dakar.

<sup>30</sup> Testua idatzita dagoen moduan ematen da salbuespen batekin, bokalen gaineko txapela kendu dugu hurrengo berbetan (e letra errepikatzen dene-

*Libera, Deus, Israel ex omnibus tribulationibus suis.*

*Psalm 24, ver. 23.<sup>31</sup>*

*Libratu ezazu, gure Jaun Ceruoa Israel cere erria bere gaitz ta tribulacio gucietatic: iguzu arren gure egunetan paque onta luce bat. Oyec dira, nere Parroquiar maiteac, David Erregue Santuac beste dembora batean Jaungoicoari eguiten zioscan escaerac: au Jaungoicoaren icenean governatu bear zuen Erreinuaren fabore ceruari eguiten zion otoiz edo oraciona; ondo zequienac bezela ecin nacio Erreinu batec gauza onic izango duela paquea gabe; alcarren arteco unio eta armonia ona dala nacio baten dicharic aundieta; ta gorputz batec osasuna eta soseguric ez-padu, ecin indartu ta irabaci dezaquean bezela, guisa berean Erreinu edo nacio batec ecin zorionic izan dezaqueala, ecin aurreratu ditequeala ez bere industria eta comercioan, ez necazaritzan, bere indar, ta osasun gustia eguiten duen alcarren arteco unio eta paque on gave; eta orra cergatik egunero español gustioc David Santuac bezela escatu bear guñioquean Jaungoicoari eman deguigula alcarren arteco unio on bat, paque gucisco bat; ta gorde dezala gure ama nacioa gaitz gucietatic.*

*Bay, nere Parroquiar maiteac, unio ta paquezco espiritu onezaz animatiuac bagueunde Español gustioc: consideratuco baguendu familia bateco personac concienciaren, ta pecatuaren azpian beren eche ta familiaren onari begiratzen obligatuac dauden bezela, modu berean Erreinu bateco semeac beren ama nacioaren onagatic beguiratzen obligatuac daudela conciencian; ecin Jaungoicoaren ofensa pisu eta pecatu gabe, beren ama nacioa enrredatuko dutela; ecin condenacioaren azpian egun dezaquetela*

---


an, lehenengo lau berbetan, eta hasierako a bokalaren gainean, azkenengo kasuan): *Corteetan, besteen, echeetan, Corteetan, asaben.*

<sup>31</sup> Euskarazko Biblia hurrengo itzulpena dator: “*Ene Jainko, askatu Israel zoritzar guztietatik!*” (*Elizen arteko Biblia*, Bibli Elkarte Batuak, Lazkao-Donostia, 1994, 817. or.).

*ecer, ez-eta-ere esan Provincia ta Erreinuko armonia ona, ta paquea nastu, ta turba dezaquean gauzaric: beren mingain gaisto, esamesa, ta embusteriaquin eche ta familietao paquea nastu, ta bata bestien arteco ostasuna, desconfianza, ecin icusia ipintzen dutenac ain nascagarriac badira Jaungoicoaren, gure federio ta religio santuaren beguietan, nun ecin Jaungoicoaren arpegui ederra iñoz ere icusico duten Espiritu Santuaren esaeran; guchiago icusico dutela beren berri gezurtiaquin, beren interesac, beren pasioac erasaten disten gobiernuaren contraco gauza oyequin Erreinu ta Provincietako unio ta paquea alboratcen dutenac; Erreinuko aguinetarien, ta buruen disposicioac tachatuaz, criticatu, gaitcera bota, ta murmuratuaz, desconfianza, ta discontentua Ciudadano edo Uritarren artean zavaltcen dutenac; beste berac baño ez jaquin, ta inocenteago ascoren buruac verotcen ditustenac, engañatu, ta obligatzen ditustela Jaungoicoaren, ta munduaren, gorputzaren, ta animaren ain galgarriac diran disparateren batzuec egitera: nola uste dedan, diot, egui audi oyec bear bezela pisatu, ta consideratuco baguinitusque, icara guchiago izango luquetela gende inocente tristeac, confianza gueyago gure governu adituac erabaquitzen dituen gauzetan, paquea gueyago erri Provincietan, ta unio ta armonia obea Ciudadano Espaniako gustien artean. Eta cembait gastu, cembait zor, banagocoac ez dirala, ez datozquie Errai, Provinciak, ta nacio gustiari?*

*Gauza lastimagarria da icustea Patriako Gurasoak Corteetan alceturik gau ta egun pensatcen nundic eta nola ama nacioaren gaitzac erremediatuko ditusten; nola aimbeste guerrac, ta aimbeste urtetako governu bidegabe batec egutti dituen llagac sendatuco ditusten; nola nacioak duen zor izugarria estali, ta eguneroko obligacioai arpegui eguingo dien; eta dembora berean nacio onetako bertako seme engañatu ta ichu asco, nola gueyago ta gueyago beren Patria ondatuko duten; nundic gure arteko guerra, guerra civil barrungo bat*

*Sibexa, Deus, Israël ex omnibus tribulationibus suis. Psalm. 24.  
ver. 23.*



*Liberatu erazu, gure Iuri Cexuoa, Yrael cexe Erria bere  
gaitz ta tribulacio jucietatik: iguru aixen gure egunetan pa-  
que on ta hice bat. Oye dixa, nexe Paxxoguiat maitear, David  
Etxeque Santuac beste demiboxa batean Iaungoicoaxi egiten  
zioscan escrexan: au Iaungoicoaxen icenean goveinatu beax  
zuen Etxeiniuaren fabore Cexuari egiten zion otoi edo oxa-  
cica; ondo zequienak bezela ecin nacio Etxeiniu batec gaur  
onic izango duela paguea gabe; alcaxzen axtoco unio eta ax-  
monia ona dala nacio baten dichazik aundiiena; ta gorputz  
batec osasuna eta sorsegutic expadu, ecin indantu ta ixabaci  
deraguean bezela, guisa bexean Etxeiniu edo nacio batec  
ecin zoxioric izan deragueala, ecin auxxeratu ditequeala  
ez bexe industria eta Comercioan, ez necazaritzan, bexe  
indax, ta osasungustia eguzten duen alcaxzen axtoco unio  
eta pague on bat gave; eta orna ergatik egunoxo Espanol  
gustioe David Santuac bezela escatu beax guinioquean Iau-  
goicoaxi eman deguigula alcaxzen axtoco unio on bat, pa-*

detrea? i Constitucioac exaguin disquigu guxi' eguin  
 ditugun falta ta pecatuac, ala guxe gaistaguexia ta  
 pasioac? Ez bada bota Constitucioaxi' er dituen faltas,  
 baicican guexen buxuaxi; Ez da Constitucioa gaistoak,  
 baicican gu~~te~~ guera gaistoak; Ez ditu ez, Constitu-  
 cioac galduco fedel eta Religioa, baicican guexeoc gal-  
 tzen degu guexe gaistaguexiaguin. i Cex balio du Man-  
 damentuac onac iratea, que goxdetzen erpaditugu?  
 Ta Cex balio du Constitucioa dan' becin ona, ta justua  
 iratea, que goxde nai erpadegu? Ez bada ichutu,  
 nexe Paxxoguiak maiteac, Amatu deragun Religioa,  
 amadragun Constitucioa; bañan amatu ditragun  
 benetan, eta er bacaxxic itz er edo ~~azkarrak~~ auan. Ez  
 deragula ecer eguin Constitucioaxen contra; er ecex  
 esan; er inox bere contra ipiñi; er belaxxixic eman mil-  
 la pretesto fingitureguin berakaren contra bexotu nai'  
 gaiturtenai; eguin alequina bere defensazaco; modu o-  
 netan iraten guexala ~~munda~~ onac, justuac, prestuac,  
 eta humillac agintaxienat mundu onetan, queko  
 izan gaitean betico di cho索ac Cexuan: Amen;

*sortuko duten anayac anayen contra, Espanol batzuec bestean contra armatzen ta verotzen ditustela: gustioc ondo alcarturic, ta unituric gure Espania tristea bere estutasun guciatatic atera, eta aimbeste meditacio, ta tiñurequin eguin zuten Constitucio, ta governu on baten aspian betico ederqui jarri bearrean, nundic, juramentuz obligatu gueran, eta gueroc onac izan nai badegu, Espania gustia demborarequin zori onekoa eguin bear duen governu legue edo Constitucio embidagarri au zapaldu ta lurperatuco duten; ta ori Cristau Catolicuen artean; Erreinuric garbi, ta Catolicoena gloriazen dan Espanian; ta Catolico garbiac izateaz, beinzat auaz, gloriatzen diran batzuecgandic: gure fede, religioa munduko governu moduetan sartuko balitz becela; Apostoloak cañonazoca fedea zavaldu valute bezela; edo espata la fusillez armaturic mundua Jaungoicoagana convertitu, ta Cristau eguin balute bezela: edo Evangelio Santuak inori encarguric eman, edo aguinduko balioque bezela, bere icenean governuaren contra juateco; legue ipiñiac trastornatu ta ondatceco, batez ere onac ta justuac diranean! ta ori cergatic? Fedeagatic, diote, Jesus manso, humil, paqueosoaren icenean, gure caridavezko, amoriozko, gracia, ta unio onezko religio garbiaren icenean!*

*jAy! nere Parroquiar maiteac; lotzatzen naiz esatera; pena ematen dit; ta ez nuen aitatuco lecu Santu onentatic; zuec lenago aditu ez bazenduten, batez ere asqueneco egun aimbesterentzat ain triste oyetan; Fedeagatic, ta Provincia eta Erreinu gustia transtornatu? Jesus manso, humil, paqueosoaren icenean, ta bere anaya ill? bere anayaren biotzean puñala sartu? gure caridavezko, amoriozko, unio onesko religio Cerucoaren icenean, ta Espaniolac, Espanolen contra armatu; batac besteari guerra eguin? guizonac ichutu, berrotu, engañatu, carcelac ta calabozoac guizonez bete; urcamendira, onzi, galera, ta presdioetara bialdu beren echeetan aimbeste falta eguiten zuten aimbeste ama tristren seme, ichuturic disparateac eragin dioscatalaco? au*

*da, nire Parroquiar maiteac, gure Ceruco religio garbi, humildadezco, amoriosco, paqueazcoa? Ta cer pensatuco luquete, beste nacioac gure, ta gure religio garbiaz, aditzean fedearren, ta religioaren icenean batac bestea iltzen degula; bata bestearen contra armatzen guerala? Sinistuko ote luquete gure religioa dala obea, icusirican bere icenean batac bestea ondatcen, ta acabatcen degula? ¡Ay! Nola afrentatzen degun gure religio Santua, bere icen Santuaz haliatzen gueranean gure pasioac, gure interesac eraguiten dizquigun pauso galdu videgabeac estalzeco: Sinista ezazute ez dabilzala orrelacoac Religioaren, ta Fedearren favore, baicican beren interesa, privilegio, edo beste munduko bentajen batzuen favore: ez Jaungoicoaren billa, baicican berac nai ditustenen ondoren eta billa: Bestela esan eguirazute, ¿Certan dijoa gure Constitucio jaquinsua religioaren contra? ¿Cer federante Santuco articulo ucatzen, edo quentzen ditu? Ez dauscagu lenagoco Sacramentu gustiac osotoro, erreccivitu nai baditugu? ¿Lenagoco Jaungoicoaren legueco mandamentuac gorde nai baditugu? lenagoco obra misericordiazcoac egercitatu edo eguin nai baditugu? ¿Ez du Constitucioac berac au gustia againtzen; izan gaiteala onac justuac on-guilleac, ta prestuac mundu gustiarequin? Ez du aurrenetik againtzen ta declaratzen gure asaben religio Catolica, Apostolica, Erromakoiz dala Espanol gustien religio bacarra?<sup>32</sup> Corteetan dauden Guraso jaquinsuac ez dute au berau orain aguindu; Eriotsaco pena ipintzen dutela gure religio ta fedea quendu, galdu, ta beste religio bat ipini nai duten gustien contra? Ta amarrenac guchituagatic, Elizaco ministroetan, ta oien numero, ta errentetan cerbait mudanza eguiñagatic; ¿norc ez daqui ez dala ori fedeco gauza? Elizan gauza oriec gustiac dembora*

---

<sup>32</sup> Sermoian aipatutako Konstituzioaren pasartea, 12. artikulua; hain zuzen, honela dio: “*La religión de la Nación española es y será perpetuamente la católica, apostólica, romana, única verdadera. La Nación la protege por leyes sabias y justas, y prohíbe el ejercicio de cualquier otra.*”

*batean modu batera eta bestean berriz beste modura izan-  
du dirala, demborac ta circunstanciac escatzen, edo aguin-  
tzen zuten bezela, fedeau batere uquitu gabe?*<sup>33</sup> Bestela esan  
eguirazute, urte bete ta gueyago da<sup>34</sup> Constitucioa degula;  
ta norc eragotzi digu guri onac izatia, Jaungoicoaren le-  
guea gordetzea? ¿Constitucioac eraguin disquigu guri egui-  
ditugun falta ta pecatuac, ala gure gaistaqueria ta pasioac?  
Ez bada bota Constitucioari ez dituen faltac, baicican  
gueuren buruari; Ez da Constitucioa gaistoa baicican gu-  
guera gaistoac; ez ditu ez, Constitucioac galduco fede eta  
religioa, baicican guereoc galtzen degu guere gaistaqueria-  
quin. ¿Cer balio du Mandamentuac onac izatea, guc gorde-  
tzen ezpaditugu? Ta cer balio du Constitucioa dan bezin  
ona, ta justua izatea, guc gorde nai ezpadegu? Ez bada  
itsutu, nere Parroquiar maiteac, Amatu dezagun Religioa,  
ama dezagun Constitucioa; bañan amatu ditzagun bene-  
tan, eta ez bacarric itzez edo auan. Ez dezagula ecer egui-  
Constitucioaren contra; ez ecer esan; ez iñor bere contra  
ipiñi; ez belarriric eman milla pretesto fingiturequin bera-  
ren contra berotu nai gaituztenai; egui alegina bere de-  
fensaraco; modu onetan izaten guerala onac, justuac, pres-  
tuac, eta humillac aguaintariantzat mundu onetan, guero  
izan gaitean betico dichosoac Ceruan: Amen.

*Cesar Gallastegi*

---

<sup>33</sup> Sermoian ere liberalismoak elizaren inguruak hartutako neurriak aipatzen dira. Coro Rubioren esanetan hauek dira ekimen horren adierazpenak: “*desamortización eclesiástica, reducción del diezmo, anulación del fuero eclesiástico, supresión de las órdenes monacales y reforma de las regulares, provisión de obispados vacantes con clérigos liberales, expulsión de los jesuitas, sujeción a reclutamiento de los tonsurados y ordenados menores*” (RUBIO POBES, Coro: *Ibidem*, 21. or.)

<sup>34</sup> Erregeak Cadizko Konstituzioa 1820ko martxoan onartu eta uztailean zin egin zuen; horrenbestez, sermoia 1821ekoa izango litzateke.